



## **FRACKING-A BEHIN BETIKO DEBEKATZEKO BEHARRARI BURUZKO E.H. BILDU UDAL TALDEAK HONAKO MOZIOA AURKEZTEN DU:**

Fracking-aren kontrako jarrera gero eta zabalagoa da. Jendarteak zein talde ezberdinek, behin eta berriz, erakutsi dute ingurumenerako eta osasunerako arrisku larriak dakartzan eta beharrezkoa den energia aldaketa hipotekatzen duen teknika honen aurkako jarrera. Fracking-aren aurkako hainbat plataformek bultzatutako Herri Ekimen Legegileak lortutako babes zabala, 103.000 sinadura baino gehiago bilduta, horren adibide argia da.

Hala eta guztiz ere, fracking-aren mehatxua ez da inolaz ere gelditu. Batetik, espainiar Gobernuak bultzada berri bat eman dio teknika honi, alorreko enpresek beraien egitasmoak garatu dezaten erraztasunak eskainiz: zundaketarako baimenak 2017 arte luzatu dituzte, eta Hidrokarburo legearen erreforma bat planteatu, eragina jaso dezaketen administrazioen borondatea erosi eta teknika hauen aurka agertzen diren herritarren ahotsa isilduz, hidrokarburo eta gasaren erauzketa teknika zikinenak, eta itzulketa energetiko txikiena duten teknikak izanik ere.

Bestetik, Eusko Jauriaritzak etorkizun hurbil batean gure lurraldean fracking putzuak ustiatzea helburu duten enpresak eta egitasmoak finantzatzen jarraitzen du. Eusko Jauriaritzak SHESA finantzatzen jarraitzen du, %100ean kapital publikoaz osaturiko enpresa bat, honek gasa bilatzeko fracking teknikak erabili ikerketa eta ustiapen zundaketa planak aurrera atera ditzan. Eta SHESAK behar dituen baimenak izan bezain pronto lehenengo putzuak zundatzen hasteko apustuari eusten dio.

Bitartean, munduko hainbat Estaturik fracking-a debekatzeko jarraitzen dute, eta bere garaian horrela egin ez zutenek teknika honen erabilpenak sortutako ondorioei aurre egin behar diete. Horregatik da hain garrantzitsua azkartasunez erantzutea, fracking-a eremu guztietan eta modu eraginkorrean debekatzea, eta gure lurraldeak teknika honen ondorioak inoiz pairatu ez ditzan neurriak hartzea.

Aurreko guztia dela-eta, EH Bildu Udal Taldeak Udaltzari mozio hau aurkezten dio, eztabaidatu eta onartu dezan:

- 1- Oñatiko Udaltzari Legebiltzarreko talde guztiei eskatzen diete fracking-aren debekua onar dezatela HELaren testuak eskatzen duen bezala..
- 2- Oñatiko Udaltzari Eusko Jauriaritzari eskatzen dio SHESAK haustura hidraulikora bideratutako finantziarioa eteteko.
- 3- Oñatiko Udaltzari SHESari eskatzen dio fracking-aren bidez gasa ez konbentzionala ikertzeko eta ustiatzeko putzu guztien baimenei uko egin diezaiela.

